

## **EUSKARAZ BIZI**

**Huna 2014-2015 ikasturte bukaerako biltzar nagusian adostu euskararen babesteko araudia.**

**Araudi hunen osatzeko, batzordeetan egin behar ziren diagnostikoak berriz egitekoak dira, ondotik baizik ez dira finkatzen ahalko arauak. ,**

**Helburua da gure haurrek euskara ikastea eta erabiltzea, eta ondorioz, ikasketen errextea murgiltze sisteman.**

**Horrela, koherentzian izanen gira, buraso eta talde pedagogia.**

**Araudi hau urtez urte arramoldatuko eta egokituko da.**

### **BURASOAK IKASTOLAN**

**Ikastola, harrera eta hautzaindegi mementuak barne, euskararen babeslekua da, denen esku da hunen zaintzea...**

- . Buraso euskaldunak haur guziekin euskaraz mintzatuz ikastolan
- . Buraso erdaldunak haien haurrekin diskrezioz mintzatuz erdaraz

**Ikastolak buraso erdaldunak euskalduntzen lagundu nahi ditu...**

- . Ikastolan euskararen aldeko giro bat sortuz, euskaraz mintzatzera bultzatuz, mezu batzuk agertuz kanpoko eremuan euskaraz
- . Burasoei sakeleko hiztegi bat emanez, ohiko hiztegi eta erranaldiekin
- . Murgiltze gualdi batzuk antolatuz burasoen artean euskaraz trebatzeko
- . Burasoen arteko zurkaizgoa sortuz

**Ikastolak bakotxaren egoera eta garapenari idekia egon nahi du...**

- . Ikastolan, gela bat segurtatuz burasoentzat, nahi den hizkuntzan lasaiki elkartzeko eta hitzegiteko

### **TALDE PEDAGOGIKOA**

Pedagogia taldearen komunikazio hizkuntza euskara da eta, bilkura eta dokumentu guziak euskara hutsez dira.

Haurrekilako komunikazioa euskara hutsez egiten da.

Burasoei zuzendu hitzak 2 moldetan eginak dira, bi burasoak euskaldunak balin badira, euskara hutsez, bietarik bat edo biak ez badira euskaldunak, bi hizkuntzetan eginak dira, lehenik eta larriz euskaraz.

Burasoei zuzendu bilkurak euskaraz egiten dira, itzultzaile bat segurtatuz beharrez.

Pedagogia taldeak euskararen erabilpena berresten du ahal duen guzietan, buraso erdaldunei eguneroko elkarrizketa arruntak euskaraz eginez.

Pedagogia taldeak segurtatzen du kanpoko parte hartzaile guziek euskaraz hitz egitea, eta ezin delarik frantses klasean sartzea (2 eta 3. zikloko ikasleentzat bakarrik).

Ikastolak antolatzen dituen ateraldietan berdin, bisita gidatu edo beste euskaraz egiten dira.

Ikusgarriak euskara hutsez egiten dira.

## BULEGOA

Bulegoko bilkurak euskaraz egiten dira, erdaldunek euskaldun bat badute ondoan itzulpenaren egiteko, hitza hartzen badute aldiz, frantsesez egiten dute.

Bilkura deiak eta bildumak, bi hizkuntzetan eginak dira, lehenik euskaraz larriz eta ondotik frantsesez.

Bulegoak burasoei igortzen dizkien mailak bi hizkuntzetan idatziak dira, lehenik euskaraz larriz eta ondotik frantsesez.

Bulegoak ikastolan afitxatzen dituen dokumentu guzientzat berdina da .

Kanpotik heldu den informazioa (traktak,...), euskaraz edo bi hizkuntzetan balin bada baizik ez zaie banatua burasoei.

Biltzar Nagusiak euskaraz egiten dira, kaskoen bidez bapateko itzulpena segurtatuz nahi dutenei.

### **Jarduera osagarriak**

Jarduera osagarriak euskaraz egiten dira.

Epe batzuetan kanpoko hizkuntzak sar daitezke : gaztelera, ingelesa, italiarra.

Horietan segurtatzen da animatzailea ez bada euskalduna, kanpoko hizkuntzan baizik ez dela mintzatzen, edo itzultzaile batek laguntzen duela kanpoko hizkuntzatik euskarara itzultzen !

---

*Euskararen babesteko araudia irakurria dut.*

*Eguna :*

*Izen deiturak :*

*Izenpedura :*

---

## **EUSKARAZ BIZI A ARBEROA IKASTOLA**

**Voici les mesures de protection de l'euskara sur lesquelles nous nous sommes mis d'accord à l'AG de fin d'année 2014-2015.**

**Pour compléter ces règles, les diagnostics qui devaient être faits dans le cadre des commissions sont à refaire; ce n'est qu'ensuite que nous pourrons décider des mesures.**

**Leurs objectifs sont d'aider nos enfants à apprendre et pratiquer l'euskara, et d'ainsi faciliter leurs apprentissages en système immersif.**

**Nous serons ainsi, parents et équipe pédagogique, en cohérence.**

**Ces mesures sont à réévaluer et réadapter d'années en années.**

### **LES PARENTS A L'IKASTOLA**

**L'ikastola, le temps d'accueil et de garderie inclus, est le lieu de protection du basque, il appartient à tous d'en prendre soin...**

- . Les parents bascophones parlent en basque à tous les enfants de l'ikastola
- . Les parents non bascophones parlent discrètement à leurs enfants

**L'ikastola veut aider les parents non bascophones à se sensibiliser à l'utilisation de l'euskara**

- . En créant une ambiance propice à l'euskara, en impulsant l'utilisation de l'euskara, en faisant apparaître des messages en euskara sur l'espace extérieur,
- . En donnant un dictionnaire de poche aux parents, avec le vocabulaire et des phrases de base
- . En organisant des soirées d'immersion entre parents pour s'exercer en basque
- . En créant un système de tutorat entre parents

**L'ikastola veut rester ouverte à la situation et à l'évolution de chacun**

En mettant à disposition une salle pour les parents, afin de pouvoir se retrouver et échanger tranquillement dans la langue qu'ils le souhaitent.

### **LE GROUPE PEDAGOGIQUE**

La langue de communication du groupe pédagogique est l'euskara, toutes les réunions et tous les documents sont uniquement en euskara

L'euskara est l'unique langue de communication avec les enfants

Les messages adressés aux parents se font de deux façons. Quand les deux parents sont bascophones, uniquement en basque; quand l'un des parents ou les deux ne sont pas bascophones, ils sont écrits dans les deux langues, d'abord en euskara et en gras.

Les réunions avec les parents sont faites en euskara, en assurant la présence d'un traducteur.

Le groupe pédagogique favorise l'utilisation du basque autant que possible avec les parents non bascophones dans les échanges simples du quotidien

Le groupe pédagogique s'assure que tous les intervenants extérieurs parlent euskara, et si c'est impossible l'intervenant peut être accueilli au cours de français (2 et 3 ème cycle uniquement).

Idem quand l'ikastola organise des sorties, les visites guidées ou autres sont en basque.

Les spectacles sont également en basque.

## LE BUREAU

Les réunions du bureau se font en basque, les non bascophones ont un bascophone à leur côté pour traduire. Par contre, ils prennent la parole en français.

Les appels à réunion et compte rendus se font dans les deux langues, d'abord en euskara en gras, puis en français

Les messages envoyés par le bureau aux parents se font dans les deux langues: d'abord en euskara en gras puis ensuite en français

Il en est de même pour tous les documents affichés par le bureau à l'ikastola.

Les informations venant de l'extérieur (tracts..ect), doivent être en euskara ou dans les deux langues pour être distribuées aux parents.

Les assemblées générales sont faites en euskara, une traduction simultanée est assurée par casques pour ceux qui le souhaitent.

## Les activités complémentaires

Les activités complémentaires sont faites en euskara.

Lors de certaines périodes des langues étrangères peuvent être abordées: espagnol, anglais, italien..etc

Dans ce cas, si l'animateur n'est pas bascophone, on s'assure qu'il ne s'exprime que dans la langue étrangère en question, ou bien qu'un traducteur l'aide pour la traduction en euskara.

---

*J'ai lu le règlement de protection de l'euskara:*

*Jour:*

*Nom/prénom :*

*Signature :*

---

